

7. Funtsezko baliabideak

Gure enpresaren helburua aurrera eramateko ondorengo baliabideak erabiliko ditugu:

Alde batetik, baliabide fisikoak ditugu:

- Lokala
- Informazioa prozesatzeko ekipamenduak: Ordenagailuak, inprimagailuak.
- Altzariak
- Lokaleko telefonoa

Beste aldetik, finantza baliabideak: Baliabideak ditugu, hau da, jabeok egingo ditugun aportzioak, kapital soziala.

Giza baliabideak eta intelektualak gure enpresaren berri emateko eta eskaintza etab. zabaltzeko erabiliko ditugu:

- Webgune diseinatzailea, gutako bat informatikoa denez, bere ardura izango da.
- Marketing arduraduna
- Bezeroekiko arreta
- Eskaintzen ditugun bisitatzeko herrialdetako herritarrak plangintza etab. egiteko.
- Gutako kide bat turismoa ikasten ari da gainera, eta 5 hizkuntzetan trebatzen da.

